

Arrasate

P R E S S U

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko uztailearen 5a / 592. zenbakia

Arrasateko
Gazte berriaren
proiektu martxan



ORAIN ETA HEMEN: LEZETXIKIKO INDUSKETA LANAK/7 • KIROLA: MAITANE LASA, EUSKADIKO BIGARREN/13

OREKAN DATZA EDERTASUNA

Udari begira taila bat gutxiago jantzi gura baduzu, oraindik garaiz zabilta!
Lirainen bakarrik aurkituko duzu estetika teknika gaurkoenak
eta kirol zerbitzu profesionalena

Adi! abuztuan ere,
estetika zentrua zabalik.



GORPUTZ ETA AURPEGI TRATAMENDUAK

1.- Diagnostikoa

Osasuna eta edertasuna oso pertsonalak direlako, Lirainen hasierako diagnosi zehatzean oinarrituta programa pertsonalizatu bat lantzen dugu, eta emaitza ezin hobekak lortzen ditugu.

2.- Tratamendua

Tratamendu lokala: zitokosmetika
Tratamendu orokorra: balnoterapia, termosaua, drena-
je linfatikoa, aparatologia, entzima-osagarriak.

3.- Kontrola eta jarraipena

4.- Finantzaketa

Aurrez %10eko deskontua edo sei hilabetean

KIRURGIA ESTETIKOA (MEDIKU ESTETIZISTA)

- Liposukzioak
- Bularren handitze edo txikitzea
- Laser bidezko depilazioak
- Dietak / Mesoterapia

MIKROPIGMENTAZIOA (MAKILLAJE IRAUNKORRA)

- Minik gabekoa.
- Edozein egoeratarako prest.
- Ezpainak, begiak eta bekarrak.
- Erosotasuna.

SOLARIUMA: ZUTIKAKOIA ETA ETZANDAKOIA

- 10 saio + 1 doan 54.09 € (9.000 Pta)

KIROL ZERBITZUA

**UZTAILEAN
MATRIKULARIK GABE!!!**
ZATOZ LEHENBAILEHEN IZENA EMATERA

- AEROBIKA
- STEP
- SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA
- MUSKULAZIOA
- SAUNA
- MAKINA AEROBIKOAK



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRU
EMAKUME-GIMNA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 52 17


KALEINKESTA/ Gaztetxe barrixe egingo dauen lekue aproposa dala uste dozu?



RAIMUNDO URIBARREN
Jubilaua



VANESSA HERRERO
Langillie



GORKA URIARTE
Langillie



GORKA SANTAMARÍA
Langillie



MAITE MARTÍNEZ
Ikaslie



AMAIA TORREGARAI
Ikaslie

Ez, hara gora igoteko eskailera asko daguz-eta. Neure ustez, lehengo gaztetxe zaharra konponketie konponbide hobie izengo litzaieke. Biher dan moduen arreglau, eta listo!

Neure ustez, leku ona da, aurrekue baiño leku hobie, seguruenik. Leku lasaixaguen dago. Pentsetan dot oin arte gaztetxiek euki dauen ibilbidie politte izen dala.

Ondiokan ez dittut lanak ikusi, baiñe nahiko leku ona dala esango neuke, erdialdetik nahiko gertu dago-eta. Aukeran, ikastaro batzuk igerrri dittut faltan, baiñe bestela ondo.

Gaztetxe barrixe biherrezkue ikusten dot, eta zelakue izengo dan ez badakit be, lekue nahiko ona dala esango neuke. Bi urte herrittik kanpo emun dot, eta ez naz askorik enterau.

Leku ona da, baiñe apur bat marginaute daguela esango neuke. Gaztetxe zaharreko bizilagunendako erabaki ona dala uste dot. Zarata txikixague egongo da, baiñe bestie gertuago euen.

Ez naz hamengue eta ez dakit non egingo dauen gaztetxe barrixe, baiñe erdialdien egin biherko leukiela uste dot. Gaztetxie biherrezkue da gaztiendako ekintzak antolaketan badittue.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZABORRA EDOZEIN LEKUTAN Hara zer aurkitu dugun oraingo astean Gazteluondo Ikastolara igotzeko eskaileretan! Geroago eta gehiago zaborrak eta bestelakoak birziklatzea bultzatzen ari direnean, badirudi geroago eta kasu txikiagoa egiten dugula. Gainera, horrela botatzea baino gehiago, hobe norbaiti ematea; gutariko zenbatak eskertuko luke horrelako zerbait besterik ezean!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /10

KULTURA /14

Eibar-Gasteiz autobidea

Aldundiak adjudikatu ditu Arrasate eta Bergara lotuko dituen autobideko lanak.

Udako abonua berbagai

Kanpoko igerilekua zabalik dago dagoeneko, eta aurten udako abonua estreinatu dute.

Errozioaren erromeria

Domekan, Arruena parkean, Errozioaren erromeria egingo dute Al Andalus elkartekok.

ASTEKODATUA

97

NESKA-MUTIKO JOAN DIRA BURGOSERA UDALEKUETAN

Arrasate Kirol Proiektuak antolatuta, ia 100 neska-mutiko Burgosera joan ziren astelehenean hamar egun igarotzeko asmoarekin. Udalekuak baino gehiago, kirol udalekuak izango dira.

BESTEKEESANA

“

(Kulturen) arteko desberdintasunez baino, nahiago nuke kontrakoaz hitz egitea: hain gara

igualak! Hemen eta han, pertsonoi lagunekin egotea eta berba egitea gustatzen zaigu. Familia eta seme-alabak dira garrantzitsuak. Ez dugu maite gosea, hotza eta nekea. Egunero, lana egiteaz kezkatzen gara, jateaz, eta apur bat gozatzeaz. Hemen eta han pertsona jatorrak, iruzurtiak, irudimentsuak, nagjak...daude. Badaude desberdintasunak, bai. Baina ugariagoak dira gure arteko berdintasunak. (...). Uste dut ondo lan egiten badugu, pazientziarekin, etenik gabe, zailtasunen eta etsipenen aurrean makurtu barik, urte batzuk barru harro egon ahal izango garela Marrupako andra-gizonei emandako laguntzaz”.

BEÑAT ARZADUN
‘TU Lankide’/02-07-01

HERRITARRENBERBAK/ Txipi Ormaetxea



Zertarako idatzi

Orain dela gutxi Mikel Irizarrek *Goienkaria*-n zioen ia urtea bete duen bere zutabeak lehen erantzun publikoa jaso duela. Ahozko komentarioak izan dituela, baina horiek ere ez asko.

Nik ere antzeko zerbait esan dezaket zutabetxo honetaz. Hasteko, inor gutxik irakurriko duen sentsazioa duzu, baina erantzunik (batez ere ahozkoez ari naiz) jaso ezean, ezin jakin.

Aurrekoegogoratu eta gai oso desberdinak erabili ditudala ohartzen naiz. Gogoan dut behin, Aramaioko/Arrasateko euskararen gainean idatzi nuenean, Otxandion neska batek komentario bat egin zidala, Aramaioko euskara politagoa zela esanez. Idazki hari buruz jaso nuen erantzun bakarra izan zen, baina gutxinez irakurle bat (eta gaztea!) izan nuela jakin nuen. Beste batzuetan hori ere ez.

Erantzun gehien azken artikulutxoarekin jaso nituen,

gaitzat onanismoa zuen harekin. Amaren haserreaz gain, komentario hauek izan nituen: urliak esan zidan artikulua ez zela politikoki zuzena, sandiak oso fuertea zela, berendiak ea zoraturta nengoen horrelakoak idazteko, eta laugarren batek gero eta okerrago idazten

dudala aitortu zidan. Ez dira oso iruzkin pozgarriak, baina erantzunak dira. Eta hori bada zerbait.

Beti pentsatu izan dut idazteko genero motz hau oso zaila dela. Izan ere, denok ezin izan pakoaristi. Zutabea letraz betetzea gaitza

ez bada ere, irakurlea irabazi egin behar da, eta hori ez da kontu erraza.

Aurrerantzean, idazten jarraitzekotan (beharbada honen ondoren Asierren deia jasoko dut gehiago ez idaztera gonbidatuz), kontu txiki eta hurbiletara inguratzeko asmoa sortu zait. Eta gertuen dudana Gesalibar denez, gure auzoko kontuekin hasiko naiz. Hurrengoaren izenburua ere badut: Errotazondo (?).

“Zutabea letraz betetzea gaitza ez bada ere, irakurlea irabazi egin behar da, eta hori ez da kontu erraza”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 5
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

ZAPATUA, 6
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99

DOMEKA, 7
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ASTELEHENA, 8
Irizar, Erguin, 11 943 79 12 39

MARTITZENA, 9
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUAZTENA, 10
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

EGUENA, 11
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Delai 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelhehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelhehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: Medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILERAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marina eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

INDUSTRIA ERAKUSKETA
Dagoeneko zabalik dago Industria Erakusketa. Iraganean Union Cerrajera-ko egoitza nagusia zegoen lekuan, egungo Saiolanen, jarri dute. Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta domeketan eta jaiegunetan, 10:00etatik 14:00etara.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Uztailaren 11n, eguenean, Alex de la Iglesiaren *La Comunidad* filma emango dute Monterronen, 22:30ean, doan.

KARKABALEK 25 URTE
Uztailaren 7an, domekan, Karkabal elkarteak 25 urte egingo ditu. 11:00etan, Batzar Orokorra egingo dute eta 12:30ean, luntxa. Karkabal elkartearen historia laburtzen duen liburua aurkeztuko dute.

ERROZIOAREN ERROMERIA
Etzi, domeka, Errozioaren erromeria egingo dute Arruenan. 09:00etan, eskualdeetako etxeetako ordezkariak ongiatorria egingo diete, *koro errozie-roa* abestuko dute eta Ama Birjina Santa Teresa elizara eramango dute. Arruenan egun osoan izango da jaia.

AEDrenAGENDA

UDAKO AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegiak antolatu ditu uztailaren 5etik 15era. Kanboko Salvador Ikastegira joko dute, eta han hormak konpondu eta margotuko dituzte, besteak beste. Hamasei urte baino nagusiagoek lan egin ahal izango dute auzolandegian. Interesatuak izena eman lehenbailehen AEDn.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskita
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

208 txakur txertatu zituzten Arrasaten

Ekainaren lehen hamabostaldian egindako txakur-amorruaren aurkako txertaketa kanpaina, guztira, 208 txakur txertatu zituzten. Albaitariak emandako datuen arabera, sasoi hartan, herrian lauhun bat txakur zeuden, eta gehienak baserri-azuetan bizi ziren.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Irabazteille"



Irabazlea.
-Zeintzuk izan die partiduko irabazteillik?

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 29 **10 °C**

MAXIMOA
Eguaztena, 26 **28 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **14,4 L**


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 26	28 °C	12 °C	3,7 l/m²
Eguena, 27	23 °C	15 °C	0,3 l/m²
Egubakoitza, 28	19 °C	14 °C	0,4 l/m²
Zapatua, 29	17 °C	10 °C	9,2 l/m²
Domeka, 30	19 °C	14 °C	- l/m²
Astelehena, 1	27 °C	13 °C	0,8 l/m²
Martitzena, 2	21 °C	14 °C	-

Barerako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Deiane, Mikel eta "Olegario".



Jon Goikolea.

'Olegario', Arrasate Irratiko fitzaketa

Arrasate Irratiko *Lentejazko izozkiak* saioak imitazioak egingo dituen kolaboratzaile berezia du. *Olegario* izena du eta hainbat pertsonaia imitatzeko dohain berezia du. Aste honetan, Karlos Argiñano, Joxe Antonio Arana eta Pepe Navarro imitatu ditu. Goizero esku hartzen du *Olegario*-k, 10:30etik aurrera. *Lentejazko izozkiak* saioan parte hartuz gero, entzuleek sariak eskura ditzakete. Esate baterako, Donostiako Akuarioa bisitatzeko sarrera bi.

Japonia bisitatuko dugu Jon Goikolearen eskutik, eta Aizkorriko maratoia 'Luma'-rekin

Oso ondo ezagutzen du Jon Goikoleak Japonia. Arrasatearra han izan zen bizi izaten eta hizkuntza ere ikasi zuen. Orain dela urte batzuk, berriz, GoiHata izeneko itzulpen enpresa eratu zuten Arrasaten, eta japonierazko itzulpenak egingo dituzte. Astelehenean, 10:00ak inguruan, Jonekin egingo dugu berba itzulpenen gainekoak eta Japon ezagutzeko.

Bestalde, zapatuan eta domekan asteko elkarrizketa batzuk eskainiko dizkizuegu.

Besteak beste, Luis Mari Ugarterekin egin dugu berba. *Luma* gaitzizenez ezagunago den arrasatearrek Aizkorriko Mendi Maratoia korrituko du domekan. Lehenengo aldiz korrituko da, gainera, Aizkorriko Mendi Maratoia. Zegaman hasiko da maratoia eta, Aizkorri eta Urbia zeharkatu ondoren, Zegaman bukatuko da. 42 kilometroko ibilbidea egin beharko du. Londresko, Parisko, Madrilgo eta Donostiako maratoietan parte hartu du *Luma*-k.

ASTEABIHITZETAN

MONERen jardunaldia

Mondragón Negozio Eskolak, MONEk, mintegia egin zuen egubakoitzean. Eskola hori orain dela gutxi aurkeztu zuten, eta egubakoitzean, *Lehiakortasunaren gakoa XXI. mendean* gaiaren gaineko mintegia egin zuten. Mintegian Thomas Malone irakaslea izan zen protagonista.

Malone jauna mundu mailako aditua da bai enpresa digital hedatuari buruzko gaietan bai informazio teknologien bidez ahalik eta onura handien lortzeko erakundeek jarraitu behar duten diseinuari buruzko gaietan ere.

Udako merkealdiak


Udako merkealdiak oraingo astean hasi dira. Eta, zenbait saltokitan sekula baino beherapen handiagoak jarri dituzte, izan ere, merkealdiak hasi eta berehala, %50ean jaitsi dituzte prezioak. Adituen esanetan, euroak eraginda, salmentak jaitsi egin dira azkenaldian eta horri aurre egiteko beherapenak sekula baino merkeagoak jarri dituzte.

Edozelan ere, betiko moduan, adi ibili behar da beherapenetan zer erosten den. Asko jota, irailaren 30era arte iraugo dute beherapenek.

Monterron parkeko argiak

Monterron parkeko argiak berriro egingo dituzte, eta Udalak 26.797.18 euroko aurrekontua dauka lan hori egiteko, baina aurrekontu hori motz geratu da. Lan hori Bereya Elektrizitatea enpresak egingo du, enpresa horrek egin du eta eskaintza merkeena. Hala ere, aurrekontua baino ia 3.000 euro gehiago beharko dira lan horiek egiteko, 29.684,37 euro, hain zuzen. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza izango du.

Lanak egiteko Bereya Elektrizitateak enpresak bi hilabete izango ditu, abuztua kontuan hartu gabe.



Bedoñabeko eraikina berritzen

San Andres Herri Eskolako berritze lanak hasi dituzte dagoeneko. Lanak egiteko, ia 230 mila euroko aurrekontua izango dute eta bi hilabetean egin beharko dituzte, irailean ikasleak eskolara bueltatu beharko dira-eta. Eraberritze lanak ia eskola osoan egingo dituzte.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Zer berri? Zaharrak berri!

Telebistako albisteak ikusiz gero -irratikoak entzunez gero ere antzera gertatzen da-, entzuten ditugun albiste onak gutxi izaten dira. Beste batzuetan, ordea, komunikabideek ez digute albiste txar batzuen berri ematen, interesatzen ez zaielako.

Aste honetan jaso ditugun berri txarren artean, astelehenean Alemanian

jazotako hegazkin istripua nabarmenduko nuke. Bidaia-ri gehienak umeak izatea are latzagoa da, baina kezka handiena sortzen didana langile batzuek hegazkinen ibilbidea kontrolatzeko duten zuhertasun falta da. Diotenez, errusiar pilotuari norabidez aldatzeko abisua 50 segundo lehenago eman zioten, eta erreflexu onak izan bazituen ere, zorteak ez

zion lagundu.

Komunikabideek esaten ez dituzten berriei dagokie- nez, Irungo alardearen inguruan halako goiburua irakurri edo entzun ditugu: "Ez zen inolako istilurik izan". Baina ez dute esaten aurten ere emakumeek ezin izan zutela alardean parterik hartu. Edonork izan behar du, beste edozein gizasemek bezala, hori edo beste edozer egiteko eskubidea, gizona zein emakumea izan. Beste-rik barik!

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

KANPOKO IGERILEKUAK ZABALIK DAUDE, BAINA EGURALDIAK EZ DU ASKORIK LAGUNDU

Kanpoko igerilekuak ekainaren 15ean zabaldu zituzten, baina arrasatearrek aukera gutxi izan dute bainu eder bat hartzeko, eguraldiak ez du-eta askorik lagundu. Argazkia astelehenean atera genuen, eta arratsalde partean jende asko animatu zen igerilekura joan eta lehenengo bainuekin gozatzeraz.

Kiroldegiko lanak amaituta, herritarrek behar den moduko kiroldegiaz gozatzeko aukera izango dute. Horrez gainera, aurten berritasun bat ere bada: udako abonua, hain zuzen ere. Abonu mota hori igerilekua udan bakarrik erabiliko dutenendako dago zuzenduta. /X.U

INMO f3

inmobiliaria



SARE

INMO f3

inmobiliaria

Erdiko kalea 26.

ARRASATE

Tel.: 943 79 12 79

- Etxebizitzen salerosketarako sare garrantzitsu bat gara.
- Gipuzkoan 14 zentro elkar lanean.
- Etor zaitez gu ezagutzera. Eskerrik asko.

Ireki berria Arrasaten!

GIZARTEA/Udalak ospitale zaharreko gaztetxea itxi gura du, eta gaztetxe berria egiten hasi da

Gaztetxea berehala itxi gura dute, eta gaztetxe berria martxoan zabalduko dute

IKER BARANDIARAN

Udalaren esanetan, ospitale zaharreko gaztetxeak itxita egon behar du. 2003ko martxora arte, gaztetxe berria zabaltzeko behin-behineko lokaletan egon beharko dute, baina ez dakite nora joan behar diren eta oraindik ez dute alde egin.

Egungo gaztetxeak, ospitale zaharrean hamaika urte pasatxo bete dituenak, agur esan behar digu laster. Izan ere, 90eko hamarkada ezkerreko gaztetxe horrek zuen mehatxua betetzera doa. Udalak eraikin erraldoi horren beharra dauka eta, azkenean, kultura etxe handia egin gura du. Udalak ospitale zaharrean kultura etxea egiteko lanak uztailean bertan hasi gura ditu eta, horregatik, gazteak kanpora joan beharko dira. Udalaren hasierako asmoa Uarkapen gaztetxe berria egin artean Ospitale zaharra ez ukitzea zen, baina azkenean ez da posible izango, eta joan den astelehenean gazteei gaztetxea uzteko eskatu zien.

BEHIN-BEHINEKO LOKALAK


Udaleko Gazteria Sailak kultura etxe berriaren proiektua aurrera zihoala jakin zuenean, gaztetxe batzarrarekin, AGAKOekin, harremanetan jarri zen. Era berean, udal gobernua gaztetxe baten aldeko apustua egin zuen eta gaztetxe berri hori zelakoa izan behar den definitu.

Udaleko Gazteria Sailak gaztetxe berrirako zenbait ideia zituen eta AGAKOren eta Udalararen artean egin dituzten batzarretan gazteek zirriborro horri egin dizkieten aldaketa eta proposamen guztiak onartu dituzte.

Hasieran, Udalak gaztetxe berria bukatuta egon arte ez zuen gaztetxe zaharra itxi gura, baina proiektuarekin eta lanekin egon diren arazo batzuen erruz, gazteak zortzi hilabetez gaztetxe barik gelditu beharko dira. Gazteek berri hori ezagutu bezain laster, erabakiari ezetza eman zioten. Azkenean, ordea, iritzia aldatu eta baietza eman dute.

Udaleko Gazteria Saileko arduradunek argi dute erabakia ez dela gazteendako onuragarria izango, baina gaztetxe zaharraren eta berriaren arteko epean, gazteei behin-behineko lokalak uzteko asmoa erakutsi dute. Bata, material guztia gordetzeko eta beste bat batzarrak edo berbaldiak egiteko. Horrez gain, Udalak berak dituen hainbat zerbitzu doan erabiltzeko eskaintza egin die: Monterrongo jauregia eta parkea, Musakolako kiroldegia, Amaia Antzokiko hall-a...

Horrez gain, Udaleko Gazte Saileko arduradunen ustetan, epe



ALEX AZKARATE

Gaztetxe berria erabiltzeko 2003ko martxora arte itxaron beharko dute. Bestalde, lanak aurrera doaz.

Behin-behineko lokalik eskuratu ezean, gazteak ez dira ospitale zaharretik joango

jakin horrek bere alde ona ere izango du: AGAKOk orain arteko ibilbidearen balorazioa egin eta aurrera begira zer egin gura

Eraikin berriak lau solairu izango ditu, eta horietako bi, batez ere, AGAKOk erabiliko ditu

duen hausnarketa egiteko denbora izango duela. hain zuzen ere. Horrekin batera, Udalak, epe horretan, gaztetxe batzarrak eta

Arrasateko Udalak gaztetxe berriaren autogestioaren aldeko apustua egin du

herriko beste hainbat talde harremanetan jartzeko proposamena egin du, euren arteko sinergia onak lor daitezkeen.

Erabilera askotariko eraikina

Uarkapen egingo duten eraikin berria gaztetxe bat baino askoz gehiago izango da. 2002ko urtarrilean hasi zen Amenabar enpresa erabilera askotariko eraikin hori egiten. Udaleko ordezkarien esanetan, Uarkapeko lanek urte bat iraungo dute eta gero, hilabete baten, barruko oinarritzko gauzak jarriko dituzte. Beraz, 2003ko martxo aldera erabilera askotariko eraikina zabalik egotea espero dute.

Eraikin berriak lau solairu izango ditu, eta solairu bakoitza 500 metro koadro zabal izango da. Lehenengo solairuan kontzertu aretoa eta taberna egongo dira. Horiez gain, komunak, aldagelak eta biltegia ere hantxe jarriko dituzte. Bigarren solairua, ordea, gela, bulego eta bilera gelatan banatuta egongo da. Bi solairu horiek gaztetxea osatuko dute, bigarren solairuko bulego eta gelak gazte talde gehiagok erabiliko dituzten arren.

Era berean, herriko beste edozein talde kontzertu aretoan ekitaldiren bat prestatu gura izanez gero, gaztetxe batzarrarekin bildu beharko da.

Lehenengo eta bigarren solairuek barneko eskailera eta igogailua izango dituzte. Eta hirugarren eta laugarren solairuek sarrera propioa izango dute. Hirugarren solairuan herriko rock musika taldeek entseatzeko hamar gela egongo dira. Zerbitzu berri horrek deposituetako lokalak ordezkatzeko ditu, eta Uarkapekoan ere lokalak erabiltzeko txandak egin beharko dira.

Laugarren solairuan Emakume Txokoa egongo da. Emakumeen gaineko lanak eta ekitaldiak hantxe zentralizatu gura dituzte. Emakume Saileko teknikaria ere hantxe egongo da, eta bulego, artxibo eta bilera gelak egongo dira. Emakumeen Kontseilua ere han bilduko da.

Uztailearen 1a ospitale zaharreko gaztetxetik irteteko azkeneko eguna izan bazen ere, gazteak ez dira oraindik handik joan. Udaleko Gazte Sailekin izan zituzten azkeneko batzarretan Udalak Jose Luis Iñarra kaleko lokal bat eskaini zien. Gazteen ustez, Jose Luis Iñarra urrun samar dago eta gurago dute lokal herri erdialdean eskuratzea. Gazte Sailek gazteen proposamena onartu zuen eta San Juanen aurretik gazteei aukeratzeko bi lokal eskainiko zietela jakinarazi zien.

LOKALIK GABE, EZ DIRA JOANGO

Hala ere, ez dute Udaletik berri gehiagorik jaso. Horren ordez, uztailearen lehen ospitale zaharreko gaztetxetik irteteko gutun ofizial bat jaso zuten. Gazteek Udalararekin ahalik eta lasterren harremanetan jartzeko asmoa erakutsi dute, eta behin-behineko lokalik eskuratu arte ez dira joango. Udalak aurrez onartu izan du Udalak berak lokal gutxi dituela, eta are gutxiago herri erdialdean kokatuta daudenak. Horregatik, lokal pribaturen bat alkatu eta Udala bera alokairuaren kargu egiteko prest agertu da.

Bai Gazte Saileko arduradunek bai eta AGAKOko ordezkariak ere orain arte elkarrekin izan dituzten bilera guztietan oso ondo konpondu direla aditzera eman digute. Eta are gehiago, Gazte Sailek eta udal gobernua ere konfiantza handia dute gaztetxe batzarraren, AGAKOren.

AUTOGESTIOAREN ALDEKO APUSTUA

Udaleko Gazte Sailek jakinarazitakoaren arabera, Udaleko ordezkariak eta gazteak izan dituzten bileratan oso desadostasun puntu gutxi izan dituzte. Gaztetxeordezkariak bilertan berba egindakoa gaztetxe batzarrera eramanez, eta gero, bueltan, gaztetxean adostutako proposamen edo zalantza hurrengo bilerara bueltan eramanez dituzte.

Udaleko Gazte Saileko Eider Martínezen esanetan, desadostasunak baino gehiago, gazteek duten kezka handiena Arrasateko Udalak gaztetxe berriaren autogestioaren apustua egingo duela sinestea da. "Zaila egiten zaie hori sinestea eta badakigu, baina Ospitale zaharreko gaztetxeak izan duen arazo bakarra intsonorizazio ezak auzokideengan eragin duen arazo izan da. Eurengan eta herriko gazteengan sinetsi egiten dugu, eta badakigu ez daukatela gure beharrik".

Era berean, Gazte Saileko arduradunek ilusio handiarekin hartu dute proiektua eta erabilera askotariko eraikinak gazteen lankidetzara asko bultzatuko dute uste dute.

Lezetxikiko kobazuloan hasi dituzte urteroko indusketa lanak

UBANE MADERA

Hamazazpi adituk osatutako taldea ibiliko da aurten Lezetxikin indusketa lanak eginen. Eguaztenean hasi zituzten lanok eta uztailaren 19ra arte ibiliko dira kobazuloan jardunean; urtero moduan, Alvaro Arrizabalaga arkeologoren zuzendaritzapean.

Madridik, Salamancatik eta Estatuko beste zenbait tokitatik etorritako hamazazpi adituk osatutako dute, aurten, Lezetxikin lanean jardungo duen taldea. Etorri ere gogoz etorri dira; izan ere, azken urteotan geroago eta aurkikuntza garrantzitsuagoak egin dituzte Garagartzako kobazuloan.

Alvaro Arrizabalaga oñatiarak GOITBri adierazi dionez, oraindik hiru urterako lana geratzen da Lezetxikin, baina, era berean, gaineratu du hiru urte horietan lan egiteko baliabide gehiago beharko dituztela, hau da, ez dagoela diru nahikorik.

Aurtengo aurrekontua hama-bi mila euro pasatxokoa da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru mila euro pasatxo emango ditu. Era berean, arestian aipatutako moduan, adituak bi astean izango dira Arrasaten lanean. Tarte



Itsasoko maskorrekin egindako apaingarriak aurkitu zituzten iaz.

ARTXIBOA

horretan, Arrasateko Udalak Udako Natura Eskola utzi die lotarako eta bestelakoetarako. Beste erakunde batzuen dirulaguntza ere jasoko dute indusketa lan horiek.

AURKIKUNTZAK UGARITU

Geldialdia izan eta gero, azken urteotan ugartu egin dira Lezetxikin aurkikuntzak. Adibidez, iaz, itsasoko maskorrekin egindako apaingarriak aurkitu zituz-

ten. Horri esker, Neanderthal gizakiaren gaineko datu berriak lortu zituzten.

Alvaro Arrizabalagak esandakoaren arabera, orain, bigarren galeria bat aztertzen ari dira. On Joxe Miel Barandiaranek ezagutzen ei zuen galeria hori, baina, orain arte, sekula ez dute horlanik egin. Edozelan ere, galeria hori uste baino garrantzitsuagoa izan daitekeela ere aipatu du indusketen zuzendariak.




Presoei idazteko kanpaina abian da

Presoei gutunak idazteko kanpaina abian jarri du gure ibarrean herri mugimendu batek. Helburua da, orain inguruko herrietako jaiak hasi direla aprobetxatu eta presoei idazteko jendea animatzea. Euren esanetan "kartzelan daudenendako laguntza handia da, oso garrantzitsua da". San Juan jaiaren bezperan hasi ziren gutunak batzen, eta, adibidez, oraingo asteburuan Aramaioko San Martin jaietan izango dira. Junkal Pérez, Irati Arantzabal eta Iñaki Gurrutxaga, presoen aldeko talde horretako hiru kideak aurkeztu zuten kanpaina hori komunikabideen aurrean. /U.M.



Erdiko kale, 14 • Tel.: 943 79 46 94 • ARRASATE



DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK

Ez galdu zure armairua udako jantziz osatzeko aukera!

Adjudikatu dute Arrasateetik Bergararako autobide zatia


UBANE MADERA

Arrasateko iparraldetik Bergararako hegoaldera doan Eibar-Gasteiz autobidearen zatia adjudikatu du foru aldundiak. Halaxe jakinarazi diote oraingo asteko Gobernu Batzordeari. Berrogei milioi euro pasatxoko aurrekontua onartu dute lanok egiteko.

Iaz, urrian, onartu zuen Aldundiak Arrasate eta Bergara lotuko dituen Eibar-Gasteiz autobide zatia egiteko proiektua. Orain, proiektua egiteko lanak adjudikatu ditu Gipuzkoako Aldundiak. Arrasateko Udaleri jakinarazitakoaren arabera, batu duten eskaintzen artean, lau enpresaren artean behin-behinerako osatutako enpresa bateratu batek egingo ditu horretako lanak: Construcciones Moyuak, Construcciones Muriasek, Construcciones Altuna y Uriak eta Construcciones Galdianok.

HOGETA ZAZPI HILABETE

Talde horrek berrogei milioi euro pasatxoko diru kopurua izango du lanok egiteko. Orain hasi eta 2004ra arte, hiru zatitan banatuta jasoko dute dirua. Lanok egiteko epea, berriz, hogeita zazpi



BERRIGARA

Bergaran aspaldi ari dira autobideko lanak egiten.

hilabetekoa da. Hortaz, 2005. urterako bukatuta egon behar dira lanak.

UDALAKO ERREPIDE ZATIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko Udaleri egindako jakinarazpenekin segituz, Udalara igotzeko errepide zati bat ere berbagai izan dute. Kontua da, 1994. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko Udaleri eman ziola Udalara igotzeko errepide-

aren titularitatea. Baina, ez zati osoarena. GI-3552 errepidearen hasierako 300 metro pasatxo (Anboto Kaleko 2. zenbakiraino) Aldundiarenak izaten segitzen zuten. Horren harira, Udalak egoera argitzeko eskatu zion Aldundiari apirilean; eta orain, Aldundiak Udaleri erantzun dio aipatutako errepidearen zati hori Arrasateko Udalarena dela, hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerrendatik kenduko dutela.

Legez kalean egon beharko luketen presoek eskubideen aldeko eguna

UBANE MADERA

Zigorraren hiru laurdenak beteta izanda, legez kalean egon beharko luketen presoek eskubideak aldarrikatu zituzten domekan Mondragoan. Horretarako, Noizko? Eguna egin zuten. Goiz osoan ekitaldiak egin zituzten eta herri bazkariarekin bukatu zuten.

Gaitajoleek lagunduta, Zaldibaroko frontoitik giza katea egin zuten

zigorraren hiru laurdenak beteta izan arren oraindik kartzelan dauden 124 preso politikoen senideek. Portaloiraino joan ziren eta han, zenbait herritar zain zituzten katearen txanda hartzeko. Izan ere, Etxerat elkarteak adierazi digunez, "kate horrek 3/4ak beteta eduki arren sentitakoak oraindik espetxean egoteak senideei suposatzen dien zama irudikatzen du".

Udaletxera joan ziren senideak, eta harrera ofiziala egin

zieten. Gero, txalapartak lagunduta kartelada egin zuten, trikipoteoa jarraian, eta bukatzeko, herri bazkaria Seberren.

Esandakoaren arabera, Arrasaten bost presok beharko lukete baldintzapeko askatasunean: Jon Agirre, Jose Gabriel Urizar, Jose Ignacio Gaztañaga, Jesus Mari Zabarte eta Enrike Letona.

Horrez gain, jakinarazi zuten hurrengo Noizko? Eguna Iruñean izango dela.

AUTOBUS URBANOA

Horren harira, eta kartzelatan euskal preso politikoen eskubideak zapaldu egiten direla salatuzko, Alcalá Mecoko kartzelan gose greban ari dira orain dela bederatzi aste. Hirunaka, aste-beteko baraualdia egiten ari dira. Ildo horretan, oraingo astean Amaia Arrieta preso arrasatearrak ekin dio baraualdiari. Neurri horrekin, besteak beste, salatu gura dute "gazteen moduluetan hainbat preso sozialek inpunitate osoz jarduten dutela, eta erasotutakoa euskalduna bada, funtzionarioek ezikusiarena egiten dutela".

Horrez gain, Askatasuna taldeak, besteak beste, Unai Parot preso arrasatearrak jasan duen jipoia ere salatu du.



MAIDER ARREGI

Jende dezente batu zen herriko plazan domekan.

LABUR

Udan, egubakoitzetan ere egongo da Pesaren gaueko autobus zerbitzua

Uztailaren 5etik irailaren 13ra arte, gaueko autobus zerbitzua izango da zapatuez gain, baita egubakoitzetan ere. Halaxe jakinarazi dio Pesa autobus konpainiak Arrasateko Udaleri. Are gehiago, Arrasateko kasuan, zerbitzu hori Maritxu Kajoi egunera arte izango da. Egubakoitzetako zerbitzu berri horrek orain arte gainerakoek izan duten ordutegi bera izango du: Arrasateetik Eibarrera, hamabiak eta hamarretik aurrera, ordu eta erdiro. Eskoriatza aldera, berriz, 00:45etik hasita, ordu eta erdiro izango da autobusa.

Kobaten egiten ari diren lanen ondorioz, kexu dira Legargain kaleko zenbait auzokide

Kobaten egiten ari diren urbanizazio lanengatik kexu dira Legargaineko zenbait auzokide. Udalean aurkeztutako kexuen arabera, batetik, bi ataritako auzotarrak Oinezkoen Zumardirako eskaileretara joan ezinda geratu direla jakinarazi dute; Legargaineko lau ataritan dagoen zikinkeria ere aipatu dute, baita lanen seinalizazio falta ere, eta horrek dakarren arriskua. Bukatzeko, auzokideek salatu dutenez, Legargain kaleko laugarren eta seigarren zenbakien pareko aparkalekua itxi egin dute. Hori dela eta, Udalak erabaki du lanon arduradunei kexuen berri emateaz gain, herritarren segurtasunaren bermea eskatzea eta auzokideei lanon eragin berri garaiz eman diezaietela eskatzea.

Lapurreta saiakerak izan dira martitzen gauean Arrasateko bi dendatan

Corte Luis jantzi dendan eta Zubizarreta Galeria 44 izeneko opari dendan lapurreta egiten ahalegindu ziren martitzen gauean. Zubizarreta izeneko saltokian, ateko kristala apurtu zuten barrura sartzeko eta diruaren kutxa zabaltzen saiatu ziren. Edozelan ere, ez zuten ezertxo eraman, alarmaren zaratarengatik beldurtuta-edo. Bestalde, Corte Luis jantzi dendako ateko kristala ere apurtu zuten, baina, hortik ere ez ei zuten ezertxo ere eraman.



AHT bertan behera uztea eskatu zuten

Abiadura Handiko Trenaren proiektua bertan behera uzteko eskatu zuten astelehenean Mondragoan. AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta, oinez zein bizikletaz, jende talde batek Arrasate zeharkatu zuen. Izan ere, aste honetan tren horrek zeharkatuko dituen herrietatik pasatu da ibilaldi hori. Horrela, euren ustez trenak ekarriko dituen kalte ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak salatu zituzten. Aramaiotik etorri ziren Arrasatera, eta hemendik Bergararako bidea hartu zuten. Besteak beste, Arrasaten tren horren gaineko informazioa eman zuten.



UDA IRITSI DA!

Arrasate Irratira ere iritsi da uda, eta uztailean programazio berezia izango da. Programazio berezia egoteaz gain, jorratuko dituzten gaiak ere urtaro honetarako aproposak izango dira. Martitzenean, udalekuetako umeak izan ziren irratian. *Aitatxo sofa gainean* abestia abestu zuten hiru urteko umeek, eta oso gustura izan ziren mikrofono artean.



IBAI ARTE SARIA

Oraingo hileko Ibai Arteko saria Mertxe Gómez arrasatearrarendako izan da. Arrasatearra da, baina Aramaion bizi da; hortaz, 600 euroak Araba aldera joango dira. Mertxek Haurtxoa dendan egindako erosketengatik irabazi du Ibai Arteko saria. Azkeneko bi sariak Haurtxoa dendak eman ditu. Sariak jasotzeko garai aproposa da hau!



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

IGERILEKUA

Aurtengo udan, igerilekuak inoiz baino aukera gehiago eskainiko ditu

Joan den urtean, kiroldegiko lanak zirela-eta, hainbat zailtasun izan ziren zerbitzu guztiez behar den bezala gozatzeko

XABIER URZELAI

Dagoeneko uda iritsi da, eta Arrasateko kiroldegia prest dago arrasatearren eskaerari aurre egiteko. Lanak bukatuta, kiroldegiak aspaldian erakutsi ez duen itxura erakargarria dauka. Zerbitzu berriak, erosotasun handiagoak eta udako abonua sistema berria.

Ekainaren 15ean zabaldu zituzten kanpoko igerilekuak ateak, eta egia esan, eguraldiak ez du askorik lagundu igerilekuaz gozatzeko. Dagoeneko AUKEA kirol erakundeak egin ditu egin beharreko lan guztiak, eta kiroldegia prest dago udari aurre egiteko. Horretarako, baina, eguzkia beharrezkoa da.

INOIZ BAINO HOBETO

Arrasateko kiroldegiak azken urteotan izan dituen berritze lanak direla-eta, herritarrek ezin izan dute igerilekuaz nahi beste gozatu. Joan den urtean, erosotasun falta izan zen nagusi, batez ere, aldagelak behin-behinekoak zirelako. Aurten, ordea, gauzak bestelakoak izango dira, eta kiroldegiak beste aurpegi bat erakutsiko du. Besteak beste, janari, edari eta izozkiak hartzeko makinak izango diren gela bat dago, kiroldegian dagoenak ezer faltan igarri ez dezan.

Udan, gainera, kanpoko igerilekuaz gozatzeko nahi duenak orain arte izan ez duen aukera izango du, abonua mota berezia izango da-eta udarako. Orain arte, kiroldegia nahi beste erabiltzeko, urte osoko abonua izan behar zen. Orain, ordea, lau abonua mota daude. Horietako hiru urte osoko abonua dira, baina laugarren abonua mota kiroldegia udan bakarrik erabiltzen dutenendako dago zuzenduta.

UDAKO ABONUA

Udako abonua ekainaren 15etik irailaren 15era arte da. Horrela, udan igerilekura joan nahi duenak ez du urte osoarako abonua ordaindu beharrik izango. Abonua sistema berri horrekin kiroldegiko arduradunek jendearen beharretara zuzendutako eskaintza egin nahi izan dute, eta, bide batez, herritarrei egindako inkestetako emaitzei ahalik eta hobekien erantzutea. Askok kirolde-



Astelehenean, giro aparta izan zen, eta jende askok aprobetxatu zuen kanpoko igerilekuan bainua hartzeko.

Udako abonua kiroldegia udan bakarrik erabiltzen dutenei dago zuzenduta

gia udan bakarrik erabiltzen dute, hortaz, erabiltzaile mota horri zuzendutako eskaintza da. Hala ere, hasiera baten, sekula-

Orain arte, 362 lagunek aukeratu dute udako abonua, inkestek ziotena baino gutxiagok

ko harrera izango zuela uste bazuten ere, 362 lagunek baino ez dute udako abonua aukeratu. Gehien- go zabalak gurago izaten du kirol-

Udako kirol kanpainen kiroldegiko kanpoko igerilekuak dauka arrakasta handien

degira urte osoan joateko aukera izatea. Abonua mota erabiliena gune hezeko abonua da. Guztira, 3.307 lagunek erabaki zuten

abonua mota hori zela euren beharretara ondoen egokitzen zena. Gune lehorreko abonua ez du arrakasta handirik izan, 194 lagun bakarrik daude-eta abonua mota horrekin. Azkenik, herritar askok, 1.245 bazkidek, hain zuzen, kiroldegiko zerbitzu guztiez gozatzeko erabakia hartu zuten plus abonuekin. Guztira, 5.108 bazkide ditu Arrasateko kiroldegiak.

UDAKO ABONUAREN PREZIOAK

Udako abonua atera gura dutenek honako hau ordaindu beharko dute: hogeitun biko lagun bakoitzak 24,05 euro ordaindu beharko dute. Hogeitun biko lagun gehiago daukatenean, 40,25 euro, eta abonua familiarra egin gura dutenek, berriz, 63,10 euro ordaindu beharko dute.

Hortaz, aurtengo udan herritarrek inoiz baino erraztasun handiagoak daukate igerilekuaz gozatzeko. Egia da orain arte egindako eguraldiak ez duela askorik lagundu, baina oraindik ere ia hilabete bi geratzen dira, eta izango da astirik eguraldi onarekin eguzkiak eta behar den moduko kiroldegiaz gozatzeko.

Arau eta gomendio batzuk

Gauza guztietan bezala, igerilekuan behar den bezala ibiltzeko hainbat arau eta gomendio hartu behar dira kontuan:

- Komenigarria da igerilekuan sartu aurretik dutzatzea.
- Hamalau urte baino gutxiago daukatenean guraso edo nagusi batek lagunduta erabili beharko dituzte igerilekuak. Umeak zaintzea ez da sorosleen lana.
- Soroslea da igerilekuko arduraduna. Hark esaten du zelan ibili behar garen igerilekuan,

eta errespetatu egin behar da hark esandakoa.

- Aldageletan, pasabideetan eta igerilekuan beharrezkoa da txankletak erabiltzea.
- Igerilekuaren gunera ezin daiteke kaleko arrokekin sartu.
- Soroslearen baimenik gabe ez da onartuko gainerako erabiltzaileei kalte egin dakioken ekintzarik; jokoak, baloiak...
- Igerilekuaren gunean ezin daiteke jan, edan edo erre. Ezin da animaliarik sartu.

Hona hemen Merkealdiak

Garibai Etorbidea, 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND

FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

UDALEKUAK

Ehun neska-mutiko joan dira udalekuetan Burgosera, Arrasate Kirol Proiektuarekin

Astelehen goizean, ehun neska-mutiko eta hainbat monitore Espinosa de los Monteros-era joan ziren udalekuetan bikain pasatzera

XABIER URZELAI

Ikasturtea amaituta, ondo pasatu eta udaz gozatzeko unea iritsi da. Helburu horrekin abiatu dira AKPko lagunak Burgos aldera, eta ehun neska-mutiko eraman dituzte. Hamar egunez umore ona eta kirola izango dira nagusi.

Aurten ere Arrasate Kirol Proiektuak udalekuekin emango dio amaiera ikasturteari. Udaleku hutsak baino gehiago, kirol udalekuak izango dira, besteak beste, kirol mordoak egiteko aukera izango dute-eta neska-mutikoek.

Arrasateko gaztetxoak hamar egunez izango dira Espinosa de los Monterosen, eta rafting-a, eskalada, espeleologia, mendiko bizikletekin ibiltzea, mendira oinez joatea eta beste hainbat ekintza egin ahal izango dituzte. Horrez gain, belauntzian ibiltzeko aukera ere izango dute. Astelehen goizean abiatu ziren, bi autobusetan, eta hamar egun izango dituzte jolastu eta gozatzeko.



Astelehen goizean abiatu ziren Arrasate Kirol Proiektuko lagunak Burgos aldera. Guztira, 100 neska-mutiko joan dira.

XABIER URZELAI

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

Olarte 7. Arrasate
Tel.: 943 79 90 43

Eskaintzen dizugu:

- Produktu dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta pertsonalizatuak

Eta gure espezialisten aholkularitza dietetiko osoa.



Santiveri

Maitane Lasa bigarren izan zen Euskadiko Arku Tiroketa Txapelketan


XABIER URZELAI

Joan den domekan, Euskadiko Arku Tiroketa Txapelketa jokatu zen Sopelako Ugeraga futbol zelaietan, eta arrasatearrek ondo baino hobeto ibili ziren. Txapelketan hiru arrasatear izan ziren, Arkulari Elkarteko kide hirurak ere. Maitane Lasak bigarren postua eskuratu zuen infantilen mailan.

Arkulari Elkarteko Mikel Lasa, Maitane Lasa eta Juan Mari Errasti arrasatearrek izan ziren Sopelan jokatu zen Euskadiko Txapelketan. Etxeko arkulariek lan polita egin zuten, baina gazteenak, Maitane Lasak, eskuratu zuen postua onena, bigarrena izan zen eta infantilen mailan.

Mikel Lasa eta Maitane Lasa arku olinpikoarekin aritu ziren. Juan Mari Errasti, berriz, arku mekanikoarekin aritu zen. Mikel Lasak bosgarren postua eskuratu zuen. Azken txandarako sailkatzea lortu zuen, baina epailearen erabaki batengatik ezin izan zuen aurrera egin. Alabak, Maitane Lasak, oso maila polita erakutsi zuen eta infantilen mailan txapeldunorde izan zen.

Juan Mari Errasti ere bikain ibili zen, eta arrasatearrek lau-



ARRASATE PRESS

San Juan jaietan arkulariekin gozatzeko aukera izan genuen.

garren postuan amaitu zuen txapelketa.

PARTE HARTZAILE ASKO

Sopelan egindako Euskadiko Txapelketa oso arrakastatsua izan zen, 140 arkulari izan ziren-eta. Guztira, zazpi mailatako arkulariek hartu zuten esku. Sopelakoa ez da izango denboraldiko azkeneko txapelketa.

Datorren zapatuan (uztailak 13), Mendi Ibilbide Txapelketa

izango da Mugarran. Modalitate horretan arkulariek animalia itxurazko dianak erabiltzen dituzte, eta mendian ibiltzen dira gora eta behera.

Eta uztailearen 21ean, Robing Apple Txapelketa izango da Zornotzan, taldeka. Arkulariak Elkarte txapelketa horietan izango da. Azken txapelketa horretan postua ona eskuratzeko, arkulariak, banaka baino gehiago, taldeka ibili beharko dira ondo.

TRIATLOIA

Jon Aperribai zortzigarren sailkatu zen Lekeition jokatu zen triatloian

Joan den asteburuan, Lekeitioko Triatloia jokatu zen, denboraldiko bosgarren triatloia, eta Jon Aperribai arrasatearrek zortzigarren postua eskuratu zuen. Beste behin, Llanos anaiak izan ziren podiumean. Bihar, Beasaingo Triatloia jokatuko da, eta Arrasateko eta ibarreko hainbat triatleta arituko dira.

FOTOKIROLA



Mondraren batzarra eguaztenean

Mondra futbol taldeak urteko Batzar Orokorra egin zuen joan den domekan Arrasateko Udaletxean. Batzarrean joan den denboraldiko kontuak egin eta datorren denboraldirako izango den aurrekontua onartu zuten. /X.U.



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84



Udako eskaintza bereziak




Samsonite
WORLDPROOF



TXANGO KULTURALA

Arizmendiko eta Txantxikuko hainbat ikaslek Santiago-bidea egingo dute

Zazpi egunean, Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako 13 ikaslek Santiago-bidearen 'Erromatar Ibilbidea' egingo dute, bizikletan

IKER BARANDIARAN

Asteleheneretik aurrera, Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako 13 ikaslek eta 3 begiralek Santiago-bidea egingo dute, bizikletan. Egun erdi bizikletan ibiliko dira eta arratsaldeak herriak bisitatzeko aprobetxatuko dituzte. Zazpi eguneko txangoa kulturala izango da.

Aurten ere Arizmendi Ikastolak txango kulturala antolatu du uztaileko lehenengo asterako. Datorren astelehenean, hamahiru bat ikasle eta hiru begirale Burgoetik irtengo dira, Santiagoraino bidea egiteko asmoz. Bide osoa bizikletan egingo dute.

Antolatzaileek aditzera eman digutenez, bizikletan ibili eta kirola egiteaz gainera, bidaia kulturala ere izango da. Izan ere, ibilbidean egingo dituzten geldituenek herriei bisitaldiak egiteko astia emango die; Fromista, Marsilla de las Mulas, Santa Catalina de Somosa, Villafranca del Bierzo, Sarria, Arzua eta Santiago

herriak bisitatzeko dituzte, hain zuzen ere.

Antolatzaileen asmoa da egunero goizez-eguerdira arte bizikletan ibiltzea. Horren ondoren, ikasleek helmuga bakoitzean ostatu hartu eta herria bera eza-gutzeko aukera polita izango dute. Hori egiteko asmoa dute, behintzat, antolatzaileek. Azkeneko egunean, Santiago hiria bisitatu, eta Gasteizerainoko buelta trenez egingo dute.

Edozelan ere, jakinarazi digutenez, baliteke ibilbidean zehar, parte hartzaileek gura izanez gero, prestatutako planari aldaketaren bat egitea.

UZTAILEKO URTEROKO EKIMENA

Duela lau urte ere Arizmendi Ikastolak Santiago-bidea antolatu zuen eta oso gustura gelditu ziren parte hartzaileak.

Are gehiago, 1992tik hona, urtero, Arizmendik holako ekimenak egiten ditu, ikasleak sasoi horretan, uztailean, aisialdi denbora dutela aprobetxatuta. Bide batez, kirola ere bultzatzen du.



Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako ikasleek kirola eta kultura uztartzeko aukera ezin hobea izango dute.

IKER BARANDIARAN

PARA... KA.
99... KA.

Hona hemen
Merkealdiak

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6 • ARRASATE

Domekan, Arruena parkean, Errozioaren erronomia

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Al Andalus kultura elkarteak Errozioaren erronomia egingo du etzi, domeka. Ohiko lekuan izango da, hau da, Zigorrolako Arruena parkean. Al Andalus elkarteak Errozia antolatzen duen hamabigarren aldia izango da, eta, seguruenik, aurtengo ere arrakastatsua izango da.

Errozia zer den ez dakienarentzako, horra hor Al Andalus elkartearen presidentea Jose Manuel Jodarrek Errozioaren gainean azaldu ziguna: "Errozia erromeroen meza handia da. Bazkide guztiok Euskal Herri osotik datozen lagunekin ospatzen dugu erromeria. Ama Birjinaganako sentitzen dugun debozioa azaltzea oso gaitza da, baina guretako oso egun berezia da. Urte osoa pasatzen dugu egun hori prestatzen, eta Ama Birjinari eskatzen diogu datorren urterako indarrak ematea".

Hortaz, gaitza da Ama Birjina hainbeste maite ez duen batek Errozia zer den ondo azaltzea. Bestalde, urtero moduan, Al Andalus elkarteak egitarau oparoa antolatu dute Errozioaren erromeriarako.

Ekitaldi guztiak Zigorrolan egingo dituzte, Arruena parkean. 09:00etan, kanpotik etorriko diren eskualdeetako etxeetako ordezkariak ongi etorria egingo diete; 09:30ean, Al Andalus elkartearen bertan elkartearen koro errozieroak *Salbe errozieroa* abestuko du; 10:00etan, Al Andalus elkartetik Errozioaren Ama Birjina aterako dute, eta Zigorrolako Santa Teresa elizarantz eramango dute. Erromero guztiak joango dira.

10:30ean, meza errozieroaren esango dute Santa Teresa elizan. Santa Teresa elizako eta ermandadeko parrokoek esango dute meza. Meza nagusia entzun ondoren, 11:30ean, erromero guztiak parkera irtengo dira eta *Blanca Paloma* aterako dute.

13:30ean, Errozioko Andereari



Al Andalusekoek kalera aterako dute Ama Birjina eta Arruenan jai handia egingo dute

lore eskaintza egingo diete. Egunean bertan, ondo baino hobeto jateko eta dantzatzeko aukera izango dute. Eta behin indarberritu ostean, 19:00etan, Errozioaren Ama Birjinak Arruenan batutako eskualdeetako etxeei

bisita egingo die. Kanpotarrei harrera egin eta gero, 19:30ean, erromero guztien laguntzarekin, Errozioko Ama Birjina Al Andalus kultura elkartearen egoitzaraino eramango dute berriro ere. Eta hantxe geldituko da, datorren urtean berriro aterako duten artean.

Aurretik, aipatutakoaz gainera, egun osoan sevillanak dantzatzeko aukera egongo da, eta Andaluziako produktu goxoak dastatu ahal izango dira. Are gehiago, erromerian parte hartu behar dutenei erroziero jantzita joateko eskatu diete Al Andalus elkartearen kideek.

Karkabal elkarteak liburua argitaratu du 25. urteurrenean

Etzi, domeka, Arrasateko Karkabal gastronomia elkarteak hogei eta bost urte beteko ditu. Urteurren berezi hori ospatzeko, astean barrena hainbat ekitaldi egin dituzte. Bihar bertan, 11:00etan, postal, argazki eta zigilu erakusketa egingo dute. Domekan, egun handian, berriz, Batzar Orokorra egingo dute. Luntxa izango dute, eta SUDC osatzen duten elkarteetako ordezkariak eta Karkabal elkartearen bazkideen alar-

gunak ere joango dira.

Horrez gainera, domekan bertan Karkabal elkartearen historia laburtzen duen liburua aurkeztuko dute: *Karkabal Elkartearen 25. urteurrena. 1977-2002*. Liburu horrek berrogeita bost orrialde ditu eta Karkabaleko bazkideen artean egin dute.

Liburuan argazki mordoa dauka: lehenengo Zuzendaritza batzordea, sukaldari famatuak, doke txapelketak, Arrasateko

erretratu zaharrak, mus txapelketak, Santa Agedako koruak, Gutxituen Eguna, Danborrada, mendizaleak, txangoak, Erretiratuen Eguna, futbola, eta abar.

Are gehiago, liburuak Karkabal elkartearekin lotutako hainbat pasarte bitxi ere badakar, baita 1977. urtetik gaur egunera arte hil diren bazkideen oroimenezko atala ere. Bukatzeko, elkartearen izena eman dion doke jokoaren arauak azaltzen dituzte.



Oporretan ere



etxeko lanak banatu



eta idan...



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEENDAKO UZTAILEKO IKASTAROAK

Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu uztailean

IKER BARANDIARAN

Aurten ere Udaleko Gazte Sailak uztaileko ikastaro eskaintza zabala antolatu du. Argazkigintza, Irrati Lantegi, Gaur Egungo Dantza, Sabel Dantza eta Autodefentsa ikastaroak, hain zuzen ere.

Ikasleek uztailean jai dutela aprobetxatuz, eta aspertu ez daitezen, aurten ere Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu uztaileko. Ez pentsa edozein modutako ikastaroak direnik.

IZENA EMATEKO AZKEN AUKERA
Irrati Lantegia uztailearen 3an hastekoa zen arren, astelehenean izena emateko aukera izango da. Argazkigintza ikastaroan ere

Datorren astelehena da ikastaro horietan izena emateko azken eguna. Animatu eta izena eman!

oso leku gutxi gelditzen dira. Gaur Egungo Dantza ikastaroko lehenengo taldea ezin izan da osatu. Uztailearen 15etik 24a artean egingo dena, ordea, aurrera doa. Sabel dantzak oraingoan ere harrera ona izan du eta bi talde eratu dira: bata goizez eta bestea arratsaldez. Horrez gain, ema-



ARRASATE PRESS

Saioa Ibáñez izango da Gaur Egungo Dantza ikastaroko irakaslea.

kume gazteei zuzendutako Autodefentsa ikastarorako taldean izena eman daiteke. Ikastaro hori

doan da, eta besteak 30 euro kostatuko dira, 15 euro langabeendako.

LOTSABARIK/ Sheila Moreno

“Arrasaten uste baino gehiago ligatzen da”

IKER BARANDIARAN

Sheila ikasketekin arduratuta dabil, eta agian, horregatik, dagoeneko ez du andereño izan gura. Ikasketek asko arduratzen dutela dioen arren, hainbat zaletasun ere badauzka, tartean, antzerkia.

• Txikitán, zer izan gura zenuen?

Andereño izan gura nuen, ume txikitxoak asko gustatzen zaizkidalako. Dagoeneko iritzia aldatu dut, andereño lana oso gaitza delako eta asko ikasi beharra dagoelako. Oraindik ez dakit zer ikasi gura dudán.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Mutil-lagunarekin, posible bada lanean eta inguru honetan bizi izaten.

• Zein da, zure ustez, adin ideiala?

Hemezortzi urte, norberak gura duena egin daitekeelako, askatasun handiagorekin.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Batez ere, lagunei eta ikaske-tei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan, ikasketek arduratzen naute gehien.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jende artean aupatsa botatzek-edo.

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?

Pazientzia handia daukadala diote, baina batzuetan gauzak txarrera hartzeko joera daukat.

• Arrasaten ligatzen da?

Batzuek Arrasaten ligatzen ez dela dioten arren, bai, hemen ligatzen da.

• Zure gorputzeko atalik gutukoena?

Begiak eta ilea. Begiak, argiak dauzkadalako eta ilea, ondo daukadalako; gauzak egiteko aukera ematen dit.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Lehenik eta behin, begiei, asko esaten dutelako. Eta gero, fisikoari begiratzen diot.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 2. maila • ZALETASUNAK: Aerobika, igeri egitea eta antzerkia
LIBURU BAT: 'Harry Potter' • FILM BAT: 'Harry Potter' • MUSIKA TALDEA: Ella baila sola • KIROL TALDEA: Reala

EGUZKIGRAF
inprimategia
Industrialdea P-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABAETA

ALDEDI
MARKO-JARTZEAK
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

BEHEKO KONTZESIONARIOTIK

Mikel Madinabeitia

ALDIBI KONTZESIONARIXOKUE

XABIER URZELAI

Mikel Donostian jaixo zan, baiñe Mondraguen bizi izen da betidanik. Marketiña ikasi euen ETEOn, eta betidanik harreman zuzena euki dau automobillean. Zenbait kontzesionarixotan ibilli da lanien, baiñe hasi, almazenen hasi zan. Gaur egun, bestiek beste, Nissan automobillek saltzen dittu.

Amet bat?

ONCEko kuponazue toketie.
Eta amets txar bat?
Gerra zibil bat bizi izetie.
Egin dozun azken biajie?
Holandara, abuztuen.
Txartel horixe, zeñei?
Udalari, edadetuen alde gutxi egitten dau-eta.

Eta gorrixe?

Españiako gobernuari, presuen egoera eta torturengaittik.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?
Leyendas de pasión / Losang Rampa / Joaquín Sabinaren 7 días y 500 noches.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai. Marihuanatik hasitte.
Eta prostituziñue?
Bai. Legalizau eta erregulau.
Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.
Ze dauketzu sobran?
Gauza askogaittik ardurie.

Eta faltan?

Teknologixa barrixetan konfiantza haundixague.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Kotxiendako eta motorrendako aparkaleku gehixago jarriko neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Harrokerixek alde batera itxi eta negoziatan hasiko nitzake.

Mendi bat?

Kurtzebarri eta Degurixa aldie gustetan jat.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Hiri batera ez. Errioxako herri txikiren batera, erreka onduen.



“Geure aittek kontetan dauena kontaute, ez neuke gureko gerra zibil bat bizi izetie”

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Pakita Arando eta Mari Karmen Etxebarria, ama eta amagiñarreba.

Eta ezagutu nahiko zeunkiena?

Mark Knoffler.
Telebisiñoko programa bat?
Mundo.hoy.

Eta irratikue?

Euskadi Gaztea entzuten dot.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?

Aitta eta amandako etxe bat erosten. Geuk dakigun lekuen.

Ze dauko Nissanek bestiek ez daukiena?

Todoterreno modelo mordue,

“Europako kotxiak izen ona daukie; Asiakuek, aurre egitteko, kalidadie eskainketan daue”

Ze ezberdintasun dago Asiako eta Europako kotxiarten?

Europakuek izen ona daukie; eta Asiakuek, aurre egitteko, kalidade ona eskainketan daue.

Nissan Primera barrixakin, gustora?

Oso. Momentu honetan aurretik gaguz diseinuen eta kalidadien.

Todoterrenuek danetik daukie. Gauza larregi ez, lokatzetan sartzeko?

Bai. Baiñe hori eskaketan daue. Gutxitan sartzien die lokatzetara.

Nissan ez dan auto marka bat?

Kalitatiagaittik, Mazda. Prestaziñuengaittik, BMW.

NIREBIDAIAHURA/ Gorka Zubizarreta

Italia /Martxoaren 16tik ekainaren 16ra arte

Gorkak, beka bati esker, web orriak egiten dituen Italiako enpresa batera joateko aukera izan du aurten. Azken baten, lan kontuengatik joan da Italiara, baina asteburuak eta Aste Santua bikain aprobetxatu ditu Italia bisitatzeko. Hiru hilabeteak Vicenzan igaro ditu, baina, besteak beste, Gardako lakua, Venezia, Florentzia, Erroma, Siena edo Elbako uhartea bisitatu ditu. Italia asko gustatu zaio, eta Siena azpimarratuko luke Gorkak. Italiako iparraldea eta hegoaldea oso ezberdinak ei dira: “Iparraldean egoera ekonomikoa oso ona da, diru asko dago, eta hori gizartean nabaritu egiten da”. Bertakoen ardura nagusia ondo jantzita eta beltzaran egotea ei da. “Hala ere, ez da hori ezberdintasun bakarra. Hegoaldeko jendea jatorragoa dela esango nuke, naturalagoa”.



“Iparraldean diru asko dago, eta hori gizartean nabaritu egiten da”

Gorka ez da batere futbolzalea, eta Munduko Kopa pareparean tokatu zaio: “Ikusgarria da bertako jendeak futbola zelan bizi duen. Gauza guztien gaineratik tifosiak dira, eta aurtengo Munduko Kopa inoiz izan den txapelketa txarrena izan dela azpimarratzen dute guztiek. Konplota egon ei da Italiaren kontra. Laneko lagunak Japonian izan dira, eta goitik behera arropa urdinak eramán zituzten.”

Arrasatearrak leku askotako lagunak egin ditu bertan, italiarrak, frantsesak, alemanak... eta lurralde bakoitzeko lagunak eta Gorkak lehenagotik zeuzkaten aurretirik kasu askotan bat egin dute. Gutxi ezagutzen ei dute Euskal Herria, eta italiarrak dira ezagutza maila txikien daukatenak. Hori gutxi izango balitz, Berlusconi politikoa gogorra gertutik bizi izateko aukera ere izan du Gorkak: “Italian gizarte zentroetan izan naiz. Nolabait esatearren, gizarte zentroak hemengo gaztetxeak dira, eta ni izan naizen hilabeteetan, Berlusconi hiru gizarte zentro ixteko agindua eman zuen. Azken baten, hauteskunde garaian izan nintzen, eta hori asko nabaritu zen”. Hala ere, Italia bisitatzeko moduko lekua ei da.

XABIER URZELAI



Florentzia (gauaz ateratako argazkia).

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Arrasatek kanpora joan beharrean, adinduek gustura hartu zuten herrian bertan egin zuten egun-pasa berezia.

Iturbide egoitzakoek pilota partidua, bazkaria eta dantzaldia izan zuten

IKER BARANDIARAN

Gaur, ekaineko kontuekin gatzokizue. Izan ere, azken asteotan San Juan jaiak izan direlako eta beste hainbat arrazoiengatik, ezin izan dugu Iturbide egoitzakoek ekainean ospatu zuten jai handi. Horregatik, gaurkoan, Iturbide egoitzakoek ekainaren erdialdean Arrasaten egin zuten jaiaren nondik norakoak ekarri dizkizuegu.

Lehen, Iturbide egoitzakoek, urtero-urtero, ekaineko egun batean txangoa egiten zuten, baina Iturbide egoitzako arduradunek jakinarazi digutenez, asko eta asko gorpil-aulkian ibiltzen dira eta mugitzeko zailtasunak dituzte. Hori dela eta, azkeneko urteotan, kanpora joan beharrean, Arrasaten bertan gelditu, kalera irteten eta herriko ikuskizunetara jozaten dute Iturbide egoitzakoek. Hain zuzen ere, Iturbide egoitzako arduradunek Arrasateko hainbat monumentu eta leku erakutsi dizkiete edadetei azken urteotan. Eta gustura hartu dute

aldaketa hori edadetek; izan ere, egoitzatik ez dira askotan irteten.

Aurten, esate baterako, goizetik Iturbide egoitzako 57 edadetu eta hogeita hamar bat laguntzaile kalera irteten ziren. Lehenik eta behin, San Frantzisko elizara joan ziren, eliza bera ikustera, ebanjelio zati bat entzuterata eta

kantu batzuk abestera, hain zuzen ere. Horren guztiaren ondoren, Zaldibarko pilotalekura jo zuten, euren dako, edadetuendako, pilota partidua antolatu zuten-eta. Barbero eta *Pedro el Indomable Txikuri*-ren eta *Curasao*-ren aurka lehiatu ziren.

IZUGARRIZKO PILOTA PARTIDUA

Iturbidekoek gain, beste hainbat herritarrek ere gustura jarraitu zuten dagoeneko ezagun-egagunak diren *fenomeno* horien goiz-eguerdiko pilota partidua. Eguraldia ere lagun izan zuten; bero handirik egin barik, eguzkia irteten eta oso giro ona izan zen.

Zaharren egoitzan bizi direnez gain, herriko beste kuxkuxero asko ere agertu ziren, Zaldibarko pilotalekuan zer gertatzen zen jakin guran-edo. Han batutako erretiratuek, behin gosea egin eta gero, Mondragón hotelean bazkari ederra izan zuten. Eta bazkalostean, hotelean bertan, dantzaldia izan zuten. Ezin esan daiteke egun makala izan zutenik Iturbide egoitzakoek!

Herria hobeto ezagutzeko grina

Urtero, ekainean, Iturbide egoitzakoek txangoa egiten dute. Azken urteotan, berriz, Arrasatek kanpo jo beharrean, herriko hainbat inguru eta leku ikustea erabaki dute.

Egoitzako askok kanpoan ibiltzeko mugikortasun txikia dute eta, gainera, kalera gutxi irteten dira. Horregatik, herrian gustura pasatzen dute.

LABUR

Uztailaren 15ean, Abaroakoek Kantabriara eta Burgosera txangoa antolatu dute

Abaroa erretiratu eta pentsiodunen elkarteak uztailaren 15ean Kantabriara eta Burgosera irteera antolatu du. Bidaia horretan, Laredon aisialdirako tartea izango dute eta Santa Maria de la Asunción eliza bisitatzeko aukera ere izango dute.

Bazkaria, berriz, Villarcayo herriko Plati jatetxean egingo dute, eta Burgos aldetik itzultzean, Frias herria bisitatu dute. Gura duten guztiek Erdi Aroko herri txiki polit horretan lasai-lasai paseatzeko aukera izango dute.

Abaroakoek autobus bi alokatu dituzte, eta biak betetzea espero dute. Izenematea astelehenean, uztailaren 8an, bukatuko da eta interesatuek 17 euro ordaindu beharko dituzte.

Musakolako zaharren elkartearen ere hasi dira uztail bukaerako txangoa prestatzen

Ekainean lasai asko ibili dira Musakolako zaharren elkarteoak, baina dagoeneko berriro piztu zaie gauzak antolatzeko gogo. Izan ere, uztail aldean Hondarribia aldera joateko ohitura daukate eta aurten ere ez dute salbuespenik egin gura. Horretarako, Hondarribiarako txangoa prestatzeko eta bidaiaren data zehazteko, uztailaren 17an, eguaztenean, batzarra egingo dute.

Ibilbidea zehaztuta daukate dagoeneko. Hondarribia aldera joko dute, Oiartzun inguruan bazkaria egingo dute, eta arratsalde partean Donostiara joko dute, txikiteoa egitera edo beherapenetan zerbait erostera. Seguruenik, bi autobus joango dira.



80 urtetik gorakoei omenaldia egin zieten

Ekainaren 24an, San Juan egunean, alkateak eta zinegotziek omenaldia egin zieten 80 urtetik gorako arrasatearrei, Abaroan, urtero moduan. Gizon nagusia Candido Moraleja izan zen; irailan 102 urte egingo ditu, eta dagoeneko senitarteko guztiei txapel bana eman die. Eta emakume nagusia Brigida Monje izan zen; azaroan 96 urte egingo ditu. Candidori txapela eman zioten eta Brigidari, berriz, lore sorta. //B.

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebédun hizkiak



ARRASATE
Ainhoa Martín
Ekainaren 30ean, 20 urte.
Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Asier Garai
Ekainaren 30ean, 13 urte.
Zorionak! Baserrikoak.



ARRASATE
Eneko Barberena
3an, 19 urte. Zorionak!
Etxekoak.



ARRASATE
Oihan Rodríguez
9an, 13 urte. Zorionak!
Izeba Alaitz.



ARETXABAETA
Oihane Agirre
6an, 30 urte. Urte askotarako!
Lanekoak.



ARETXABAETA
Ibon Agirre
6an, 30 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



ARRASATE
Andoni Abautza
4an, 5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



ARRASATE
Haizea Arriaran
4an, 9 urte. Zorionak!
Etxekoak.



ARRASATE
Garazi Etxabe
4an, 2 urte. Urte askotarako!
Aita eta ama.



ARRASATE
Eider Agiriano
1ean, 2 urte. Urte askotarako!
Arrasateko eta Zubillagako familiakoak.



ARRASATE
Eider Agiriano
1ean, 2 urte. Urte askotarako!
Aita, ama eta ostegunetako neskak.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.
Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea

ibai-arte



Ekaineko zozketaren irabazlea, Mertxe Gómez izan da . Zorionak!
Parte hartu 600 € hileroko zozketan
Oraindik uztaileko saria falta da.
Sari-txartelak Ibai-arteko komertzioan aurkituko dituzue

“Edozein bidaiaria mota lotzen saiatzen gara; saiatu, behintzat”

Oporrak geroago eta gertuago daude, eta sasoi honetan, bidaiaria agentziek gura beste lan izaten dute. Besteak beste, askoren oporraldia antolatu, nora joan aholkatu eta guztia lotuta uztea izaten da bidaiaria agentzien lana. Barceló Bidaiak agentziako Maiterekin, Ainhoarekin eta Krisekin egon gara; bidaiaren gainean egin dugu berba.

Azkenaldian lanpetuta egongo zarete, ezta?

Kris: Bai, baina urte osoa darabagu horrela. Lehen, udan bakarrik izaten genuen lan asko, baina azken urteotan, ia urte osoan izaten dira bidaiaria asko.

Zein motatako bidaiaria antolatzen dituzue?

Ainhoa: Mota guztietako bidaiaria antolatzen ditugu: taldekako bidaiaria, bikoteendako bidaiaria, bakarkako bidaiaria. Horrez gainera, era guztietako eskaintzak izaten ditugu. Azken baten, jendearen eskarari erantzuten diogu.

Arrasatearrak nora joaten dira oporretara?

Kris: Leku askotara. Ezin esan dezakegu arrasatearrak zona konkretu batera bakarrik joaten direnik. Jendeak oso bidaiaria ezberdinak egiten ditu, eta leku guztiz ezberdinetara. Ez dago topiko berezirik.

Une honetan zeintzuk dira daukazuen eskaintza erakargarrienak?

Ainhoa: Eskaintza erakargarriak aspaldi agortu ziren. Gertatzen dena da askotan jende askok kale egiten duela, eta, leku horiek bete egin behar direnez, bidaiaria horiek oso merke eskaintzen dituztela. Hori azken egunetan izaten da; hortaz, argi ibili behar.

Nora ez zenukete gomendatuko bidaiaria bat egitea?

Maite: Guk ez dugu esaten leku konkretu batera ez joateko. Edozelan ere, egoera politikoa ezegonkorra bada, ez dugu leku hori gomendatzen, baina azken hitza bezeroak izaten du beti. Askotan, bezeroek ez dute jakiten nora joan, eta, euren gustuen arabera, hainbat leku gomendatzen dizkiegu. Hori ere gure lana da-eta.



Ainhoa eta Kris:
BARCELÓ BIDAIAK

“Bezero askok ez dakite nora joan oporretan, eta, euren gustuen arabera, guk hainbat leku gomendatzen dizkiegu”

“Arrasateko jendea ausarta da bidaiaria egite-rako orduan, baina askotan, agentziek ezartzen dituzte ereduak”

“Bidaiaria perfektua norberaren arabera da, baina argi dago denbora izatea elementu garrantzitsua dela”

Barceló  **Bidaiak**

Maalako Errebala 33 ARRASATE
Tel.: 943 79 70 11

Orain dela hamar hilabete, inork ez zuen gura hegazkin hartu. Egoera aldatu egin da?

Ainhoa: Bai, egoera aldatu egin da. Irailean eta urrian asko nabaritu zen hori, baina jendeak berehala galdu zuen beldurra. Gabonetan eta Aste Santuan jendeak berdin-berdin hartu zuen hegazkina.

Lasai bidaiatzeko, zein da urtarorik egokiena?

Kris: Uda eta Aste Santua ez den beste edozein sasoi. Lekuak askoz ere lasaiago egoten dira, eta, horrez gainera, bidaiaria askoz merkeagoak izaten dira.

Esan egiguzue, zein izango litzateke bidaiaria perfektua?

Maite: Hori bakoitzaren arabera da, baina argi dago elementu garrantzitsuen denbora dela. Denbora izanez gero, bidaiaria asko izan daitezke perfektuak. Lurralde bat hamabost egunean ikustea oso gaitza da, baina hiru edo lau hilabete izanez gero... Jakina, horretarako diru apur bat ere behar da.

Azkenaldian jendeak ezer berezirik eskatu du?

Ainhoa: Bai. Azkenaldian jendea itsas bidaiengatik interesatu da. Orain arte bazirudien dirudunendako bidaiaria zirela, baina azkenaldian oso prezio onean daude. Mediterraneoan zehar eta iparraldeko fiordoetan zehar hainbat bidaiaria interesgarri daude.

Eskatu dizueten bidaiaria bereziren bat?

Kris: Orain dela gutxi, Islamabadera bidali ditugu bezero batzuk. Mendira joateko asmoarekin joan ziren, eta orain egoera politikoa oso ona ez bada ere, ez zuten atzera egin. Horrelako bidaiaria antolatzea, gainera, ez da erraza izaten.

Bidaiaria batzuk antolatzea ez da oso errentagarria izango, ezta?

Maite: Ez. Hainbat agentzian errentagarritasunari bakarrik begiratzen diote, eta zerbait berezia eskatuz gero, ezekoa ematen dute. Gure leloa da edozein bidaiaria mota lotzen saiatzea. Azken baten, zerbitzu hori ere eman egin behar dela uste dugu, eta jendeak eskertu egiten du.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko uztailaren 5a / 32. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Hogeita laugarren Arrantza Lehiaketa datorren zapatuan

UBANE MADERA

Hogeita laugarren urtez, Arrantza Lehiaketa jokatu da Aramaion. Datorren zapatuan (hilak 13) izango da, 09:00etatik 13:00etara. Antolatzailleak, Oilgor Ehiza eta Arrantza Elkarteak, 50 kilo amuarrain botako ditu errekarra bezperan; gutxi gorabehera, 200 bat amuarrain. Arrantzazten ez diren arrainek erreka birpopulatzen lagunduko dute.

Goikoerreotan hasi eta Kukuko presaraino, debekaldiko errekatia libre utzi eta handik Salazan baserriraino, arrantzalez beteko da Aramaio erreka datorren zapatuan (hilak 13). Izan ere, urtero moduan, Arrantza Lehiaketa antolatu du herriko Oilgor Ehiza eta Arrantza Elkarteak. Zapatu goizean izango da. Herriko arrantzazale askok parte hartu ohi dute lehiaketan. Iaz, adibidez, 30-40 bat lagunek parte hartu zuten. Hala adierazi digu Juan Miguel Loitik, elkarteko Zuzendaritza batzordeko kidea. Gaineratu digu arrantzarako zaletasun handia dagoela Aramaion, eta horren adierazle da Arrantza Lehiaketako hogeita laugarren aldia dela. Hortaz, litekeena da aurten ere jende dezentek parte hartzea.

GUZTIENDAKO OROIGARRIAK

Adinaren arabera, bi mailatan banatu dituzte lehiakideak: lautik hamabi urtera artekoak eta



FAUSTINO GOROSTIZA

Hogeita laugarren urtez egingo dute aurten Arrantza Lehiaketa.

12tik 16 urtera artekoak. Jakina, zeinek amuarrain pisutsuena edo zeinek amuarrain gehien harrapatu, hark irabaziko du.

Edozelan ere, Juan Miguel Loitik esan digunez, irabazi edo ez irabazi, parte hartzen duten guztiek jasoko dute lehiaketako oroigarriren bat, arrantzarekin

lotutako zerbaite (otarrak, amuak, kanaberak...).

Esandako moduan, antolatzailleek 200 bat amuarrain edo 50 kilo arrain botako dituzte erreka lehiaketa egin ahal izateko. Loitik esan digun moduan, harrapatzen ez dituzten arrainak erreka birpopulatzeke izango dira.

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

WELCOME Aramaioxora, baina kontuz...

Munduan badira beti eskua poltsiko batean sartuta daramaten biztanlez osaturiko hiriak. Kalean txakurra paseatzen ari diren agureak, taberna aurreko terrazan gintonic-ez mozkortzen diren burgeskumeak, leihoetatik kristorenak botatzen dituzten etxeoandreak dituzte, munduko hiri guztiek bezala, baina bereziak dira hiri horiek. Gutxi izan arren (munduko hirien ehuneko 2,5a edo) badute beren garrantzia mapa historikoetan. Edozein delarik lekua edo unea, bertako biztanle guztiek esku bat poltsikoan daramate beti. Uh! Uh!

Aramaio ez da hiri bat, herri txiki bat da. Baina baditu txakurrak paseatzen dituzten agureak eta leihotako etxeoandreak. Badu herriko plaza bat, baditu hiru taberna, hiru gazte-lokal, loro polit bi, sekulako pinu piloa eta palmondo solteren bat hortik zehar. Esan daiteke Euskal Herriko herri-herria dela, bere eskolarekin eta udaletxearekin eta medikukontsultarekin eta elizarekin.

Kontuz.

Aramaio munduan zehar banatzen den % 2,5 horren barruan sartu zen orain asko ez dela. Kalean oinez edo korrika edo bizikletan dabilzan eta arrazoitzeko kapaz diren pertsona bizi-dun guztiek esku bat daramate beti poltsikoan. Oterantzean, pertsona normalak dira, begiratuko dizute aurpegira edo ez (gogoaren arabera), erritmo geldoagoan edo biziagoan ariko dira oinez etab. Baina beti eskua poltsikoan. Zigarroak esku bakarrarekin pizten dituzte, ezagunak beti esku berarekin agurtzen dituzte... Eta txarrena ez da beti beste eskua poltsikoaren barruan eramatea, poltsikoaren barruan zergatik daramaten baizik, zer gordetzen duten poltsikoaren barruko esku bilduaren barnean. John

Wayneren pelikuletan jendeak ez zeukalako ezer ezkutatzan ibili beharrik, poltsikoaren barruan eskua eraman beharrean agerian zeramate-lako beti.

San Ferminen arrosarioak dioen bezala: Welcome Aramaioxora, baina kontuz...



"Esan daiteke Euskal Herriko herri-herria dela"

artizar



Label kalitatea duen esnea

Ondo pasau jaixetan!

Zabola-Azkoaga
ARAMAIO
945 44 51 58

UNZUETA
J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

BOTEPRONTOAN/ Ainara Inuntziaga · Lagun Artean dantza taldeko arduraduna

“Oraingo umeen aitaitak eta amonak dantza taldean ibilitakoak dira”

Herriko taldeekin segituz, dantzan hasiko gara oraingo astean. Horretarako, Lagun Artean dantza taldera jo dugu. Ainara Inuntziaga irakasle eta arduradunarekin izan gara berbetan, eta taldearen gainean honakoa kontatu digu:

Noiztik existitzen da Lagun Artean dantza taldea?

Ez dakit segurua esaten. Beti ari gara argazki-bilduma edo zerbaitegitekotan. Dakiguna da nik orain ditudan ume txikien aitaitak eta amonak dantza taldean ibilitakoak direla; hortaz, urte dezente.

Gaur egun, zenbat ume daude?

50 bat. Mutilak askoz ere gutxiago. Beti izan da horrela. Dena dela, oraingo mutikoak dezente eusten ari dira.

Zein adin dute?

Lehen, bost urtetik 12 urtera artekoak zeuden. Hortik aurrerakoek ez dute segitzen beste herrietako eskoletan hasi ostean; euren esanetan, ez dutelako astirik. Dena dela, orain erabaki dugu sei urtetik aurrera hastea, oraingo umeak ez dira-eta batera errazak.

Sastiñan zaudete orain...

Orain bai. Aspaldi, Santa Anan izan ginen. Han aire librean geunden eta orain, lau hormaren artean. Ez da asko, baina bueno. Astean birritan egiten ditugu entseguak, hiru ordu laurdeneko eskolak; gehiago luzatuz gero, umeak kexatu egiten dira.

Dantzari izandakoa, orain, arduradun. Noiztik?

Maidar Larrañagarekin batera, irakasleak ere geu gara. Orain dela lau zapabost urte hasi nintzen. Dantzan sei urtetik 18 urtera arte ibili nintzen.

Urtean zein saio duzue?

Araban gaude federatuta, eta Dantzarien Bitzarrean parte hartzen dugu, federatutako gainerakoekin. Horren barruan egun jakinak daude; adibidez, Aramaion iaz Bertako Dantzen Eguna egin zuten; guk Txakolin dantza egin ohi dugu egun horretan. Eta orain Aurrekua



“Maidar Larrañagarekin batera naiz taldeko arduradun”

“Etorkizun zaila du taldeak; uztekoan gaude, eta beste norbait lortzea...”

eramatekotan gaude, Aramaio-koa desberdina da-eta. Bestela, Aramaion ez dago Euskal Jairik, ez dago dirurik. Iaz, Autoktonoena egin zen eta aurten Dantza Soltea egiten saiatu gara, baina Udalak esan digu ez dagoela dirurik. Egia esan, diru larregirik ere ez dugu behar, baina... **Txakolin dantza aipatu duzu...** Guk ez genekien existitzen zenik ere. Federazioan jakin genuen Aramaion Txakolin dantza geneukala; erretiratutako pertsona batek, federazioko presidentek, hain zuzen, esan

zigen hori. Legutiokoei galdetu genien eta esan ziguten eurek bazekitela. Ikasi egin genuen. Orain dela hiru urte izan zen. **Zela aukeratzeko dira dantzak?** Umeek ondoen egiten dituztenak: Txulalai, Saint Petit... **Zelako zaletasuna dago?** Ume asko derrigortuta daude. Izena eman gustura egiten dute eta gustura hasten dira, baina gero, derrigortuta segitzen dute. **Zela ikusten duzu etorkizuna?** Zaila. Uztekoan gaude, eta, beste norbait lortzeko... Sakrifizioa da horrelakoetan jardutea.

LABUR

Uda sasoi dela-eta, ordutegia aldatu dute herriko zenbait zerbitzutan

Uda partean ohikoa denez, herriko zenbait zerbitzutako ordutegia aldatu egin dute. Esate baterako, liburutegia goizez zabalduko dute martitzenetik aurrera, 10:00etatik 12:00etara, hain zuzen ere. Eta abuztuan itxita egongo da. Ludotekari dagokionez, dagoeneko itxita dago, orain umeak udalekuan ibiliko dira-eta.

Talde batek asmatu du aurtengo San Martinetarako esaldia

Aitxien, semien eta euskeraz hemen izango da aurtengo jaietako esaldia. Lehiaketara aurkeztutako datuen arabera, herriko talde batek afari baten ostean asmatutako esaldia da. Saria, berriz, “kanpoan egon beharko luketen eta laster kalean egongo diren” herriko bi presorendako eman dute.

Sei aramaioar Gasteizen izan dira karta-joko txapelketan parte hartzen

Museko, tuteko eta briskako Arabako txapelketan parte hartzen joan dira oraingo astean sei aramaioar. Hain zuzen ere, aipatutako karta-jokoetan Aramaioko txapelketan irabazle izan zirenak egon dira Gasteizko txapelketan, herriko bi emakume eta lau gizonezko.



Eguaztenean hasiko dira udalekuak

Eguaztenean hasiko dira aurtengo udalekuak. Laurogei ume baina gehiagok eman dute izena; eta zortzi begiralek eta arduradun batek (Ana Muñoa, ludotekako arduraduna) zaizkio dituzte. Uztaillaren 10etik 24ra arte izango dira udalekuak, 10:00etatik 13:00etara. Topagunea plaza izango da eta auzoetan bizi direnek autobusa izango dute joan-etorria egiteko.



Goiena Telebista San Martin jaietan:

Uztaillaren 8an

14:00: Berriak zuzenean Aramaiotik.
AURKEZLEAK : Gorka Etxabe eta Julen Iriando

Uztaillaren 9an

20:15: San Martin jaien inguruko saio berezia (elkarrizketak, lehiaketak, ekintzak...)



ERRETRATUZAHARRA

Karkabal
elkarteak 25
urte bete ditu

1 976. urtean, *Mutuen* koadrilako zenbait mendizalek txabola bat egin gura izan zuten Euskal Herriko mendi baten. Koadrilako gainerakoek jakin zutenean, zera esan zuten: "Eta zergatik ez elkarte gastronomiko bat?". Horrela, Karkabal elkarte sortzeko aurreneko batzar *klandestinoak* egiten hasi ziren (Francoren garaian egiten zen guztiak gobernuaren baïmena izan behar zuten). Lehenengo batzarra Besaide mendi elkartearen egin zuten, 1976ko irailaren 6an. Zenbait *Mutu* eta *Marruku* elkarte ziren, eta, lehenik eta behin, elkartearen izena aukeratu zuten. *Ilustratuetako* batzuk *Txorabela* izenaren aldekoak ziren; Erdiko kaleko *Txikito*, berriz, *Karkabal* izenaren aldekoa zen (Doke jokoagatik). Azkenean, *Txikito*-ren tesia nagusitu zen.

Behin elkartearen izena asmatuta, hurrengo, estatutuak idatzi behar ziren. Horretarako, San Frantziskoko parrokiako lokalean batu ziren 1977ko apirilean.

Eta azkenik, elkartearendako



lokala aurkitu zuten. Horrela sortu zen Karkabal elkarte, orain 25 urte.

Argazkian agertzen direnak Karkabal elkarteko aurreneko Zuzendaritza batzordeko kideak dira. Goiko ilaran, ezkerretik eskumara, honako-

ak daude: JJ. Uriarte *Bermi*, G. Etxebarria, B. Lorenzo (presidentea), JM. Zabala, JM. Larrañaga *Pitxitxi* eta I. Solupé.

Eserita, ezkerretik eskumara, honakoak daude: JR. Mondragón, L.

Sagasta, *Mane*, G. Iartza eta JJ. Del Valle. Uztailaren 7an inauguratu zuten.

Argazkia eta berriemailea: Karkabal elkarte Urtea: 1977. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Otalora kalea
eta Seber
Altube

Joan den asteko alean, konturatuko zinetenez, eskuinaldeko argazkia ez zen Otalora kalekoa, Caracasko auzo batekoa baizik. Okerrak zuzentzeko asmotan, agertu behar ziren argazkiak dakartzkizuegu. Izan ere, Otalora kalea asko aldatu da azken hogeita hamar urteotan, baina ez horrenbeste. Egun, San Frantzisko elizako horma da aldatu ez den ia gauza bakarra.



≈ 1965

Argazkian Seber Altuben zegoen azoka azaltzen da. Eskuinaldean dagoen etxea Gerraren etxea da.



2002

Eraikin bi horiek aspaldi bota zituzten, eta Otalora kalea zabalagoa da gaur egun. Oinezkoendako egiteak ere mesede egin dio.

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



**BASATI
TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

Tel. 943 711757

ARRASATEKO HERRIARI

Espainiako Gobernuak ekainaren 26an indarrean ipini zuen Alderdien Legea.

Lege horren helburua Batasuna (HB, EH) alderdi politikoa legez kanpo uztea dela diote. Halere, gure iritziz, jarrera guztiz faxista eta zentzugabea izateaz gainera, Euskal Herri osoaren aurkako eraso bortitza da.

Bestearen iritzia onartu ezin duenaren jarrera adierazten du eta euskal izaera duen guztiaren kontra doa (Udalbiltza, euskara, euskal hezkuntza sistema, lan harremanetarako esparrua, euskal kirol selekzioak, alderdi abertzaleak, Euskal Herria bera, azken finean).

Egoera horren aurrean, ondokoa adierazi nahi diogu Arrasateko herriari:

1. Espainiako Gobernua ez dela inor, demokratikoki irabazi genuen herritarren ordezkaritza guri kentzeko eta are gutxiago Euskal Herriari soilik dagozkion gorabeheretan sartzeko.

Bestela esanda, herritarrok eman zeniguten zilegitasuna ezin digula inork kendu, geure herriak izan ezik.

2. Ez garela gisa horretako probokazioetan eroriko; aldiz, geure eskubideei eutsiz eta aldi berean eginbeharrei erantzunez lanean jarraituko dugula Arrasateko Udal Gobernuan, zein euskal gizarte osoarekin, normaltasun osoz, bizi dugun egoera gatazkatsu honi irteera egokiena ematea lortu arte.

EH

Euskal Heritarrok

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
ARETXABAETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

